


## BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



**FastLooking** proiektuaren balio-proposamena gizartera zabaltzeko, komunikazio eta publizitate estrategia eguneratua eta anitza garatuko dugu, gaur egungo kontsumo ohituretara egokitua. Horretarako, sare sozialak eta influencer bidezko publizitatea izango dira gure komunikazioaren ardatz nagusiak, baina, aldi berean, komunikazio kanal tradizionalak ere erabiliko ditugu publiko zabalago batera iristeko.

Sare sozialek gaur egun eragin handia dute, bereziki gazteen eta heldu gazteen artean, eta horregatik, Instagram, TikTok eta antzeko plataformak erabiliko ditugu **FastLooking** proiektua ezagutarazteko. Kanal hauen bidez, eduki bisual erakargarriak, bideo laburrak eta ispilu adimendunaren erabilera erreala erakutsiko ditugu. Horrek erabiltzaileek produktuaren funtzionamendua modu errazean ulertzea ahalbidetuko du.

Testuinguru honetan, **influencerrek funtsezko papera betetzen**

**dute gaur egungo komunikazio digitalean.** Sare sozialetako eduki-sortzaileek jarraitzaileekin duten hurbiltasunak eta konfiantzak eragin zuzena dute haien erabaki kontsumitzaileetan, batez ere gazteen artean. Horregatik, **FastLookingek** moda, makillaje eta lifestyle arloko influencerrekin lankidetzan jardungo du, produktua modu naturalean eta sinesgarrian aurkezteko.

Lankidetzak hauek markaren ikusgarritasuna handitzeko eta publiko berrietara iristeko estrategikoak izango dira, eta horrek azaldu egiten du markek FastLookingekin kolaboratzeko duten interesa.



Hala ere, kontuan hartzen dugu publiko guztiak ez daudela sare sozialetan modu aktiboan. Horregatik, **telebistako iragarkiak** ere erabiliko ditugu komunikazio-kanal gisa, adin helduagoko publikoarengana eta ohiko komunikabideak kontsumitzen dituzten pertsonengana iristeko. Telebistaren bidez, **FastLooking** proiektuaren mezua modu zabal eta eraginkorrean helaraziko dugu, produktuaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna azpimarratuz.



Banaketa-kanalari dagokionez, **FastLooking ispilu adimendunaren salmenta ez da soilik gure webgunearen bidez egingo**, baizik eta banaketa-kanal zabalagoa izango du. Webgunea produktuaren erosketa egiteko gune nagusietako bat izango da, modu erraz eta seguruan, baina, aldi berean, **saltoki fisiko handietan ere eskuragarri egongo da**, hala nola El Corte Inglés, MediaMarkt edota FNAC bezalako establezimenduetan. Horrela, bezero mota desberdinetara iristea bermatuko dugu, bai online erosketak lehenesten dituztenengana, bai aurrez aurreko salmenta baloratzen dutenengana.

Behin ispiluaren erosketa eginda, erabiltzaileek **aplikazio mugikorra doan deskargatu** eta **FastLookingek** eskaintzen dituen zerbitzu guztiak kostu gehigarririk gabe erabili ahal izango dituzte, esperientzia pertsonalizatua eta irisgarria eskainiz.